

# KANALAK

Gure okindegiaren kanalak hauek izango dira:

**Komunikazio-kanalak:** Irratian jarriko ditugu iragarkiak bezero helduagoengana iristeko, eta gazteei dagokienez, sare sozialetan kontuak egingo ditugu gure produktu eta berritasunak erakusteko.

**Banaketa-kanalak:** Banaketa aukera ere izango dugu, eta horretarako Glovo enpresarekin akordu batera iritsi gara, gure banaketak egin ahal izateko Gasteizko edozein lekutara. Dena den, dendan bertan jaso daitezke enkarguak.

**Salmenta-kanalak:** Gure salmenta kanal nagusia alde zuzena izango da, hau da, okindegian bertan erosten dira produktuak. Beste alde batetik, lehen esan dugun bezala, Glovo enpresarekin akordu batera iritsita, beraz bere aplikazioaren bidez ere egin daitezke ordainketak.